

2016ko Irakasle-Ikertzaile Lan Eskaintza Publikoa Aurrera doa

Azken ordura arte egon da argitzeke 2016ko **Lan Eskaintza Publikoa (LEP)**, Eusko Jaurlaritzak ekonomikoki bermatuko zuen ala ez jakitearen zain. Ostiralean, UPV/EHUko zuzendaritzatik jaso genuen konfirmazioa 2016ko LEPean eskainiko diren 97 irakasle-ikertzaileen lanpostuen banaketaren ingurukoa, barne promozioaren bidez eskainiko diren katedra kopurua oraindik zehaztu gabe jarraitzen badu ere. Hauek dira datuak:

2016ko Lan Eskaintza Publikoa:

- Agregatu (%53): **51** plaza
- Unibertsitateko titular (UT) (%29): **28** plaza
 - Atxikitik UTra: **19** plaza
 - Agregatutik UTra: **9** plaza
- Ramón y Cajal ikertzaileak (%15): **15** plaza
- Oso (%3): **3** plaza

2016an **barne promozioaren** bidez atera daitezke plaza kopuru maximoa (Eusko Jaurlaritzaren eskuetan dago):

- **28** katedra (LEPeko UT kopuruaren parekoa)

Guztira: 125 plaza

- LEP: **97** plaza
- Barne promozioa: gehienez **28** plaza

Unibertsitatearen hitzetan, banaketa egiterako orduan kontuan izan dute zenbait arazori aurre egiteko tresna izan behar lukeela LEPa. Hala nola:

- LOUk ezartzen duen eredia mantentzeko (funtzionario doktoreak gutxienez irakasleen plantilaren %51a izatea);
- sail batzuen pertsonal iraunkor ezari erantzuna emateko;
- eta irakasle-ikertzaileen egonkortzea bideratzeko.

LABek beharrezko ikusten du banaketa honen azpian dauden irizpideak eta diferentziak agerian uztea. Ulertuta ere irakasle batzuen interesa, ez gaude ados erreposizio-tasak ahalbidetzen dituen lanpostu gutxiak une honetan agregatutik unibertsitateko titular (UT) kategoriara aldatzeko erabiltzearekin, beste hainbat irakasleri iraunkor bihurtzeko aukerak mugatzen dizkiolako, baldintza guztiak bete ondoren urteak daramazkienean egonkortzeko aukeraren zain.

Hainbat eztabaidetan sindikatu guztiok egonkortzea dela arazo nagusia defendatu dugu eta, ondorioz, lehentasuna izan behar duela LEPetan. Horregatik **LABetik, halabeharrez UT irudirako diren lanpostu gehienak atxikiak egonkortzeko izatea defendatu eta lortu dugu**. Honela, UT akreditazioa duten atxiki guztiei, 19 alegia, titularitatea lortu eta egonkortzeko aukera emango zaie, unibertsitatearen hasierako proposamenean baino 6 gehiagori, nahiz eta ez konpartitu egonkortze prozeduran lehendik zegoen irakasleen zerrendan hainbat txanda-pasa egiteko administrazioak hartu duen erabakia.

LABek UPV/EHUko ehunka langile beren lanpostuetan egonkortzea du helburu nagusia. Madriletik inposatutako legeak arbuiatu beharra gero eta ageriagokoa da, besteak beste erreposizio-tasa eta funtzionario doktoreen proportzio minimoa. Lege hauek eragiten dituzten egoera latzetan

gehiago erreparatu behar du UPV/EHUren zuzendaritzak eta langileon arazoak lehenetsi. Bide horretan lagun izango gaitu.